

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

| | | | |
|---|--|----------|-----|
| PRESTAKUNTZA-ATALA | SEGURTASUN-NEURRIAK ETA INGURUMENEN NEURRIAK LABORATEGIAN APLIKATZEA (ZEHARKAKOA) | Iraupena | 40 |
| Kodea | UF0107 | | |
| Lanbide-arloa | KIMIKA | | |
| Lanbide-eremua | Analisa eta kontrola | | |
| Profesionaltasun-ziurtagiria | Analisi kimikoa | Maila | 3 |
| Prestakuntza-modulua | Kalitatea laborategian (Zeharkakoa) | Iraupena | 130 |
| Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak | Laborategiko kalitatearen eta jardunbide onen kontrola (Zeharkakoa) | Iraupena | 50 |
| | Laborategiko datuen tratamendurako eta kudeaketarako programa informatikoak (Zeharkakoa) | | 40 |

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0052_3 LABORATEGIKO JARDUERA ANTOLATZEA ETA KUDEATZEA, PROZEDURA ETA ARAU ESPEZIFIKOAK APLIKATUZ gaitasun-ataleko LB4 eta LB5 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Produktu kimikoen eta haien manipulazioaren arriskuak ebaluatzea, neurri prebentiboak proposatuz eta neurri horiek laneko prozedura normalizatueta sartuz.

EI1.1 Produktu kimikoak errektibotasunaren ikuspuntutik sailkatzea eta segurtasunezko sinbologiarekin identifikatzea.

EI1.2 Produktu kimikoen ontziei, etiketei eta garraioari dagokien segurtasunezko araudia identifikatzea eta segurtasun-neurri aplikagarriak azaltzea.

EI1.3 Norbera babesteko ekipoak arrisku-faktoreekin erlazionatzea.

EI1.4 Laborategiko ekipoen eta instalazioen mantentze-lanei dagozkien segurtasun-neurriak azaltzea.

EI1.5 Ordena eta garbitasun-arauak arrisku-faktoreekin erlazionatzea.

EI1.6 Laneko prozedura normalizatueta, arrisku kimiko edo biologikoen aurrean hartu beharreko neurri prebentiboak deskribatzea eta araudi aplikagarria identifikatzea.

A2: Laborategiko lanetik eratorritako arrisku higienikoen faktoreak osasunean dituzten eraginekin erlazionatzea bai eta detekzio- eta/edo neurketa-teknikekin eta -gailuekin ere.

EI2.1 Kutsatzaile kimikoak eta biologikoak izaeraren, osaeraren eta organismoan izan ditzaketen eraginen arabera sailkatzea.

EI2.2 Laborategiko kutsatzaile kimikoak eta bertako mikroklimatek eratorritako kutsatzaileak izaeraren eta organismoan dituzten eraginen arabera sailkatzea.

EI2.3 Kutsatzaileak neurketa zuzeneko gailuekin neurtzea, eta emaitzak aplikatu beharreko araudiaren erreferentziako balioekin erlazionatzea.

EI2.4 Detekzio- eta/edo neurketa-gailu homologatuak deskribatzea.

EI2.5 Banako eta taldeko segurtasun-neurriak deskribatzea.

A3: Laborategian ingurumena babesteko erabili behar diren neurriak aztertzea, eta arriskuak prebenitzeko eta kontrolatzeko behar diren sistemak, ekipoak eta gailuak proposatzea.

EI3.1 Analisari/saiakuntzari aplikatu beharreko araudiaren oinarriko alderdiak identifikatzea.

EI3.2 Arriskuak kontrolatzeko behar diren detekzio- eta neurketa-gailuak erabiltzea.

EI3.3 Laborategian substantzia-kantitate txikiak desagerrarazteko teknikak aplikatzea eta substantziok kudeatzeko arauak betetzea.

EI3.4 Laborategiko larrialdi-botikinean egon beharko liratekeen produktuak eta sendabideak proposatzea.

EI3.5 Larrialdi-egoeretan jarduteko segida deskribatzea eta behar diren NBEak identifikatzea.

EI3.6 Laborategi baten oinplanoan arriskuguneak identifikatzea, eta seinalizazio egokia eta segurtasun-elementuen kokapena proposatzea.

Edukiak

1. Prebentzio-ekintzaren plangintza

- Perilen eta erlazionatutako arriskuen identifikazioa. Arriskuen sailkapena: higienikoak, segurtasunekoak eta ergonomikoak.
- Arriskuen analisia. Arriskua saihesteko aukerak zehaztea.
- Saihestu ezin diren arriskuen ebaluazioa. Arriskuen tolerantzia zehaztea. Lege-baldintza aplikagarriak.
- Arrisku saihesgarriak desagerrarazteko ekintzak planifikatzea.

- Arriskuak murriztu eta kontrolatzeko ekintzak planifikatzea.
- Babesteko ekintzak planifikatzea (taldeari nahiz norbanakoari zuzendua).
- Larrialdi-plana: larrialdiko egoerak identifikatzea, larrialdiari ekiteko modua antolatzea, ebakuazioa antolatzea, lehen laguntzak antolatzea.

2. Prebentzio-ekintzaren burutzapena.

- Laborategiko jardueri dagozkien arriskuen informazioa eta barne-komunikazioa.
- Arriskuak desagerrarazi, murriztu eta kontrolatzeko eta arriskuetatik babesteko neurrien informazioa eta barne-komunikazioa.
- Laborategiko jardueretan oinarritzko alderdi prebentiboei buruzko prestakuntza ematea langileei. Arrisku kimikoa: prestaketa, manipulazioa, garraioa. Arrisku elektrikoa. Arriskuen prebentziorako prozeduren eta argibideen interpretazioa.
- Babes kolektiboko ekipoak (xurgapen-kabinak) eta norbera babestekoak (hautserako aurpegi-babesak, ikatz aktiboko iragazkia, etab.) erabiltzeko eta mantentzeko prestakuntza eta trebakuntza.
- Laborategiko larrialdi-planari buruzko prestakuntza eta trebakuntza (su-itzalgailuen erabilera, suteetako ur-hargune hornituen erabilera, xurgatzaile kimikoen erabilera, lehen laguntzari buruzko oinarritzko ezagutzak).
- Langileek prebentziorako jardueretan parte hartzea eta kontsultak egitea.
- Gorabeherak aztertzea eta ikertzea, istripuak barne (OHSAS 18001:2007 nazioarteko espezifikazio teknikoaren terminologiak duela gutxi aldatu du istripu kontzeptua).

3. Prebentziorako ekintza ikuskatzea eta egiaztatzea.

- Ezarritako ekintza-planen kontrola eta jarraipena: ez betetzeko arrazoiak aztertzea eta, beharra izanez gero, birplanifikatzea.
- Prebentziorako barne- eta kanpo-ikuskaritzak.
- Dokumentazioaren eta erregistroen kontrola.
- Arriskuen aurrean dauden langileen osasuna zaintzea. Istripuen adierazleak aztertzea.

4. Prebentziorako ekintza ebaluatzea eta hobetzeko proposamenak egitea.

- Zuzendaritzak prebentziorako kudeaketa-sistemaren efizientzia eta eraginkortasuna ebaluatzea.
- Prebentzioa hobetzeko helburuak proposatzea.

5. Laborategiko ingurumen-arriskuen prebentzioa.

- Laborategiko hondakinak.
- Laginak hondakin gisa desagerrarazteko teknikak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Sartzeko irizpideak

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Analisi kimikoa